



Arralbi, 1

Tlfnos. 94 631 34 59 - 94 631 30 05 - Fax 94 631 43 22

www.lemoa.net

48330 LEMOA (Bizkaia)

**JUAN MARIA MAGRO SANCHEZ**  
**JAUNAK, LEMOAKO (BIZKAIA)**  
**UDALETXEKO IDAZKARI-**  
**KONTUHARTZAILEAK.-**

**ZIURTATZEN DUT:**

Udaletxe honek, **2.013 ko**  
**otsailaren 6.ko datan Ohiko Osoko**  
**Bilkuran,** besteak beste, honako  
 akordioa hartu duela :

**"5.- ETXE KANPORATZEEN**  
**KASUETARAKO PROTOKOLOA.**

**IKUSITA.-** Edukia, "**Lemoako**  
**udalak etxe kanporatzeen aurrean**  
**martxan jarriko dauan**  
**protokoloa**"rena, Batzorde  
 Informatzaileak aurkeztua eta, berbaz  
 berba, honakoa dinoala:

**"ETXE KANPORATZEEN AURREAN**  
**LEMOAKO UDALAK MARTXAN**  
**JARRIKO DUEN PROTOKOLOA**

Neurri zehatzak biltzen dituen  
 protokoloa da, eta bi helburu ditu, batetik  
 egoera larri honen aurrean daudenei  
 laguntza praktikoa ematea eta, era  
 berean, etxegabetzeen sistema  
 bidegabeari aurre egitea.

Lehenik eta behin, etxegabetze denak  
 denbora mugagabeen bertan behera  
 uzteko exijitzen du Lemoako Ohiko  
 Bilkurak. Herritarren eskubideen  
 defentsa bermatzeko legediaren aldaketa  
 exijitzen dugu. Era berean, herritarren  
 etxebizitza eskubidea babesten du, gai  
 honetan bankuek eta Espainiako  
 gobernuak duten jarrera ozen salatuz.

**D. JUAN MARIA MAGRO**  
**SANCHEZ, SECRETARIO-**  
**INTERVENTOR DEL AYUNTAMIENTO**  
**DE LEMOA (BIZKAIA).-**

**CERTIFICO:**

Que este Ayuntamiento, reunido en  
**Sesión Plenaria Ordinaria, de fecha 6**  
**de Febrero de 2.013,** adoptó, entre  
 otros, el siguiente acuerdo literal:

**"5.- PROTOCOLO PARA**  
**SUPUESTOS DE DESAHUCIOS.**

**VISTO.-** El contenido del "**Protocolo**  
**que pondra en marcha el**  
**Ayuntamiento de Lemoa ante los**  
**desahucios**", presentado por la  
 Comisión Informativa correspondiente y  
 del siguiente tenor literal:

**"PROTOCOLO QUE PONDRÁ EN**  
**MARCHA EL AYUNTAMIENTO DE**  
**LEMOA ANTE LOS DESAHUCIOS**

Se trata de un protocolo que conjuga  
 medidas precisas y cuenta con dos  
 objetivos. Por una parte la concesión de  
 ayuda práctica a quienes se hallan en  
 esta difícil situación y, al propio tiempo,  
 el hacer frente al injusto sistema de los  
 desahucios.

En primer lugar, el Ayuntamiento  
 Pleno de Lemoa exige la anulación de  
 todos los desahucios por un tiempo  
 indefinido. Exigimos la modificación de  
 la ley para garantizar la defensa de los  
 derechos de los ciudadanos. Al mismo  
 tiempo, protege el derecho a la vivienda  
 de los ciudadanos, denunciando de  
 modo patente la actitud que en este tema  
 tienen los bancos y el gobierno de  
 España.



Arraibi, 1

Tlfonos. 94 631 34 59 - 94 631 30 05 - Fax 94 631 43 22

www.lemoa.net

48330 LEMOA (Bizkaia)

• Horrela bada, ezinbestekoa deritzogu, egoera honen aurrean, instituzioen eta etxegabetzen aurka ari diren eragileen arteko elkarlana. Horretarako udala eta eragileekin harreman iraunkorra izango da. Momentuz, herrian ez dago gai hau lantzen duen eragile konkreturik. Hori aztertu eta "elkarlan egitasmoan" parte hartuko duten eragileekin lan egin dezakegu honen inguruan.

Beharrezkoa ikusten den kasuetan, etxegabetzen gaiaren lanketarako, udal batzorde berezi bat antolatzeko aukera irekia geratzen da.

• Udala, herrian ohiko etxebizitzaren etxegabetzeak jasan dituzten edo jasateko arriskuan dauden herritarrei irekita dago. Egoera hori nozitu duten edo arriskua duten herritarren informazioa jasotzea ezinbesteko du udalak, ekinbideak martxan jarri ahal izateko.

- Horretaz arduratuko den bat izendatuko da: alkatea

- Kaltetuen eskura, telefono zenbaki bat eta e-mail bat jarriko dira. Kasu honetan, egoeren larritasuna ikusita, jarraian alkatearen kontaktua jartzea proposatzen dugu. Horrela, harremana zuzena izan daitezkan.

- Hala eskatzen duten kaltetuek, diskrezio osoa izango dute Udalaren aldetik.

• Udalak, herritarraren aurkako etxegabetze prozedura martxan duen bankuarekin harreman bidea irekiko du, honako helburuekin:

• Así las cosas consideramos imprescindible, ante esta situación, el trabajo conjunto de las instituciones y de los agentes que actúan en contra de los desahucios. A tal fin existirá una relación permanente entre el ayuntamiento y dichos agentes. Por el momento no existe en el pueblo ningún agente concreto que desarrolle este tema. Tras analizar el mismo podemos trabajar con los agentes que tomarán parte en "proyectos de cooperación".

En los casos en que se considere necesario para el examen del tema de los desahucios queda abierta la posibilidad de organizar una comisión municipal específica.

• El Ayuntamiento está abierto para quienes han sufrido los desahucios en su vivienda y para quienes se hallan en peligro de sufrirlos. El Ayuntamiento precisa la recepción de información por parte de quienes se hallan en dichas situaciones para poder poner en marcha iniciativas al respecto.

- Se nombrará quien se ocupará del tema: la alcaldesa.

- Se pondrá un número de teléfono y un e-mail a disposición de los perjudicados. En este caso, vista la gravedad de la situación, proponemos a continuación establecer el contacto de la alcaldesa. Así, la relación será directa.

- Quienes, como perjudicados, así lo soliciten, contarán con total discreción por parte del Ayuntamiento.

• El Ayuntamiento establecerá una línea de contacto con el banco que haya puesto en marcha el procedimiento de desahucio en contra del vecino con estos objetivos:



Arraibi, 1

Tlfnos. 94 631 34 59 - 94 631 30 05 - Fax 94 631 43 22

www.lemoa.net

48330 LEMOA (Bizkaia)

- Etxegabetze prozedura denbora mugagabeen bertan behera uzteko exijitzea.

- Kaltetuaren aldetik dagoen proposamen oro bankuari bideratzea.

• Udalak, Kutxabank-eko partaide den heinean, bereziki exijitzen dio entitate honi, etxegabetzeak bertan behera utzi ditzan denbora mugagabeen. Epaitegietan martxan dauden prozedurak ere bertan behera uzteko beharrezko diren urratsak eman ditzan exijitzen dio Udalak Kutxabank-i. Kutxabank-en barne egituran dauden aukera guztietatik bideratuko dio Udalak, arestian aipatutako exijentzia.

• Udalak, etxegabetzeen gaiarekin duten jarreraren arabera kreditu entitateekin duen harreman instituzionala, ekonomikoa eta elkarlana berrikusi egingo ditu: Etxegabetzeak gauzatzen dituzten eta egiten ez dituzten entitate finantzieroen arteko sailkapena egingo du Udalak eta etxegabetzeak egiten dituzten banketxe horiekin harremanak etengo ditu.

• Udalak, herritarren jakinaren ganean utziko du etxegabetzeen gaiaren aurrean Banku, Kutxa edo Kooperatiba bakoitzak duen jarrera.

• Lemoako Udalak ez du etxegabetze prozedurarik bultzatuko eta beraietan parte hartuko. Era berean, gai hauetan, epaitegietatik bideratutako prozedurak gauzatzeari uko egiten dieten udal langileak (udaltzainak kasu gehienetan), babestu egingo ditu udalak.

- La exigencia de que, por tiempo indefinido, se anule el proceso de desahucio.

- La transmisión al banco de todas las propuestas existentes por parte del perjudicado.

• El Ayuntamiento, en la medida en que participa en Kutxabank, exige especialmente a dicha entidad que anule los desahucios por tiempo indefinido. También le exige a Kutxabank que adopte las medidas oportunas para la anulación de los procesos de desahucio judicialmente iniciados. El Ayuntamiento dirigirá la exigencia arriba mencionada a través de todos los medios existentes en la estructura interna de Kutxabank.

• El Ayuntamiento revisará la relación institucional, económica y cooperación con las entidades de crédito en función de la actitud que adopten en el tema de los desahucios. Confeccionará una clasificación de las entidades financieras entre aquellas que ejecutan los desahucios y aquellas que no los ejecutan e interrumpirá las relaciones con los bancos que ejecuten los desahucios.

• El Ayuntamiento manifestará a los vecinos la actitud que cada Banco, Caja o Cooperativa adopta en relación con el tema de los desahucios.

• El Ayuntamiento de Lemoa no impulsará los procedimientos de desahucio y no tomará parte en los mismos. Al propio tiempo, protegerá a los trabajadores municipales (policías municipales en la mayoría de los casos) que se nieguen a ejecutar los procedimientos tramitados por los



Arraibi, 1

Tlfnos. 94 631 34 59 - 94 631 30 05 - Fax 94 631 43 22

www.lemoa.net

48330 LEMOA (Bizkaia)

• Udalak, ohiko etxebizitzaren etxegabetzea nozitu duten herritarrei, etxebizitza eskubidea onartua izan dezaten, laguntza juridikoa eta lehen arretari informazioa eskainiko die.

• Ohiko etxebizitzarik gabe geratu diren herritarrei premiazko irtenbidea emate aldera eta alokairu soziala erreferentzia nagusizat harturik, Udalak,

– Etxebizitzaren eskumena duten erkidego eta foru entitate publikoekin (Etxebide eta Vinsa) elkarlana bultzatu du.

– Hainbat etxebizitza hutsik dituzten banku eta higiezin enpresei ardura exijituko die.

• Herrian etxegabetze prozedura bat gauzatzen den bakoitzean, egunean bertan, Udalak herri eragileekin batera, etxebizitza eskubidearen alde eta etxegabetzeen aurka, kontzentrazioa egingo da herriko plazan.

**HARREMANETARAKO DATUAK**

Telefonoa: 946313005

Emaila: [alkatea@lemoa.net](mailto:alkatea@lemoa.net)

Gehiengoz, Protokoloaren aldeko 9 botoekaz (4 Bildu eta 5 EAJ-PNV) eta abstentzino legaz (PSE/EE PSOE) honakoa erabagi da:

juzgados.

• El Ayuntamiento ofrecerá ayuda jurídica y primeros auxilios, a fin de que les sea reconocido el derecho a la vivienda, a los vecinos que han sufrido el desahucio de la vivienda habitual.

• A fin de conceder una solución de emergencia a los vecinos que se han quedado sin vivienda habitual y tomando como referencia principal el alquiler social, el Ayuntamiento:

– Impulsará la colaboración con las comunidades o entidades forales públicas que cuentan con facultades en el tema de la vivienda (Etxebide y Vinsa).

– Exigirá responsabilidades a bancos y empresas inmobiliarias que cuentan con gran número de viviendas vacías.

• Cada vez que en el pueblo se desarrolla un proceso de desahucio, en el mismo día, el Ayuntamiento, juntamente con los agentes municipales, realizará una concentración a favor del derecho a la vivienda y en contra de los desahucios en el plaza del pueblo.

**DATOS DE CONTACTO**

Telefono: 946313005

E-mail: [alkatea@lemoa.net](mailto:alkatea@lemoa.net)

Se acuerda por mayoría, con 9 votos a favor del Protocolo ( 4 Bildu y 5 EAJ-PNV ), y 1 abstención (PSE/EE PSOE):



Arraibi, 1

Tlfonos. 94 631 34 59 - 94 631 30 05 - Fax 94 631 43 22

www.lemoa.net

48330 LEMOA (Bizkaia)

**LEHENA.**- Onartzea "**Lemoako udalak etxe kanporatzeen aurrean martxan jarriko dauan protokoloa**" beronen terminoetan.

**PRIMERO.**- Aprobar en sus propios términos el "**Protocolo que pondra en marcha el Ayuntamiento de Lemoa ante los desahucios**".

#### **AURKA EGITEKO BIDEAK**

Administrazio-bideari amaiera ematen dion aipaturiko ekintzaren aurka, **BERRAZTERTZEKO HELEGITEA** aurkeztu daiteke, hautaketa bidez, ekintzari epaia eman dion erakundearen aurrean, edota zuzenean Administrazioarekiko-Auzietarako Eskumeneko Aginduaren aurrean kontra egin dezake, guzti hau Azaroaren 26eko Administrazio Publikoen eta Administrazio-Jardunbide Orokorraren Lege-Erregimenari buruzko 30/1.992 Legea aldatzen duen Urtarrilaren 13ko 4/1.999 Legearen 116-1. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Berraztertze Helegitea aurkezteko epea **HILABETE BATE**koa da, akordio honen jakinarazpenaren hurrengo egunean zenbatzen hasita, Azaroaren 26eko Administrazio Publikoen eta Administrazio-Jardunbide Orokorraren Lege-Erregimenari buruzko 30/1.992 Legea aldatzen duen Urtarrilaren 13ko 4/1.999 Legearen 117-1. artikuluan xedatzen denaren arabera.

#### **MEDIOS DE IMPUGNACION**

Contra el acto transcrito, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponer, potestativamente, **RECURSO DE REPOSICION** ante el Organo que ha dictado el acto, ó bien ser impugnado directamente ante el Orden Jurisdiccional Contencioso-Administrativo, todo ello de conformidad con el artículo 116-1º de la Ley 4/1.999, de 13 de Enero, que modifica la Ley 30/1.992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El plazo para la interposición del Recurso de Reposición será de **UN MES** a contar del día siguiente a la notificación del presente acuerdo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 117-1º de la Ley 4/1.999, de 13 de Enero, que modifica la Ley 30/1.992, de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.



Arraibi, 1

Tfnos. 94 631 34 59 - 94 631 30 05 - Fax 94 631 43 22

www.lemoa.net

48330 LEMOA (Bizkaia)

Halaber, BI HILABETEtako epearen barnean, akordio honen jakinarazpenaren hurrengo egunean zenbatzen hasita, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko-Auzietarako Epaimahaiaren aurrean **ADMINISTRATIOAREKIKO-AUZIETARAKO HELEGITEA** aurkeztu daiteke, guzti hau Administrazioarekiko-Auzietarako Legediaren arautzaile den Uztailaren 13ko 29/1.998 Legeko 46. artikulua 1. zenbakian xedatzen denaren arabera.

Azaroaren 28an, 2568/1.986 Errege-Dekretu bidez onarturiko Tokiko-Erakundeen Egituraketa, Funtzionamendua eta Lege-Erregimena arautzen duen Legediko 196. artikulua lehen paragrafoan azaltzen denaren betekizunean jakinarazten zaizu, hau Urtarrilaren 13ko 4/1.999 Legearen arabera idatzitako Azaroaren 26eko Administrazio Publikoen eta Administrazio-Jardunbide Orokorraren Lege-Erregimenari buruzko 30/1.992 Legearen 58. artikuluko 2. paragrafoarekin lotuta dagoelarik.

Lemoan, 2.013ko otsailaren 15an  
**IDAZKARIAK O.E. ALKATE ANDREAK**



Podrá asimismo interponer **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO** ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de **DOS MESES** a contar desde el día siguiente a la notificación del presente acuerdo y ello con arreglo a lo dispuesto en el nº 1 del art. 46 de la Ley 29/1.998, de 13 de Julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Lo que le comunico a Vd. en cumplimiento de lo que dispone el párrafo 1º del art. 196 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por Real Decreto 2568/1.986, de 28 de Noviembre, puesto en relación con el párrafo 2º del art. 58 de la Ley 30/1.992 de 26 de Noviembre, de Régimen Jurídico de Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, redactado conforme a la Ley 4/1.999, de 13 de Enero.

En Lemoa a 15 de Febrero de 2.013  
**EL SECRETARIO Vº Bº LA ALCALDESA**

**ADMINISTRATIVO ESPEDIENTEA.**